

2021eko EKAINAREN 22an EGINDAKO GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAKO KONTSEILU ERREKTOREAREN BILKURAREN AKTA.

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren egoitzan (Gaztelako Atea 15, Gasteiz) eta 2021eko ekainaren 22ko 09:30ak direnean, Kontseilu Errektorearen bilkura hasi da Zoom bidez, honako pertsona hauen parte-hartzearekin:

- **Presidentea:** Beatriz Artolazabal Albeniz andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako (hemendik aurrera, eLankidetz) eta haren Kontseilu Errektoreko presidentea.
- **Bokala:** Iker Atxa Zaitegi jauna, Gizarte Berrikuntzako zuzendaria, Lehendakaritzaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Josu Urrutia Beristain jauna, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Sofía Marroquín Guerrero andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Patricia Bárcena García andrea, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Imanol Zuluaga Zamalloa jauna, Kabineteko zuzendaria, Osasun Sailaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Jone Miren Fernández Landa andrea, Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako zuzendaria, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Azpiegitura Sailaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Fernando Iturriaga jauna, Programa eta Azterlanen aholkularia, Ekonomia eta Ogasun Sailaren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Leixuri Arrizabalaga Arruza andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeko presidentea, Eusko Legebiltzarren ordezkari gisa.
- **Bokala:** Oihana Etxebarrieta Legrand andrea, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubide, Berdintasun eta Justizia Batzordeko kidea, Eusko Legebiltzarren ordezkari gisa.
- **Idazkaria:** Paul Ortega Etcheverry jauna, eLankidetzako zuzendaria.

Era berean, gai-zerrendan dauden gaiak aurkezteko laguntza teknikoa eskaintzearen, honako hauek ere batzartu dira, gonbidatuta: Jose Antonio Rodríguez Ranz jauna, Giza

Eskubide, Memoria eta Lankidetzako sailburuordea, Ana Rojo González andrea, eLankidetzako Zerbitzu Juridikoko arduraduna, Alazne Camiña Izkara andrea, eLankidetzako Koordinazio Teknikoko arduraduna eta Edurne Bengoechea Sorozabal andrea.

Sarrera

eLankidetzako eta haren Kontseilu Errektoreko presidentek hartu du hitza bertaratutakoei ongietorria egiteko, eta bilkurari hasiera eman dio, gai-zerrenda honekin:

1. *2021eko maiatzaren 4an egindako aurreko bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea*
2. *2021eko zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea*
3. *Ekintza humanitarioko proiektuei laguntzak emateari buruzko informazioa*
4. *Genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sustatzeko laguntzak emateko proposamenari buruzko informazioa*
5. *Galde-eskeak*

Presidenteak eman dio hasiera bilkurari, eta adierazi du gaur aztertu beharreko gai-zerrendari buruzko dokumentazio guztia aldeztatik aurretik helarazi dela.

1. Aurreko bilkuraren akta irakurri eta onartzea.

Bertaratutakoek ohar bat bera ere egin ez dutenez, 2021eko maiatzaren 4ko bilkuraren akta onartu da, bertaratutako guztien aldeko botoekin.

2. 2021eko zuzeneko dirulaguntzen proposamenak onartzea.

eLankidetzak izapidetu beharreko zuzeneko 9 dirulaguntza aurkeztu ditu Kontseiluko presidentek onartuak izan eta Gobernu Kontseiluari aurkeztea proposatzeko. Diruz lagundu beharreko proposamenen informazio xehatua (erakunde onuraduna, diruz lagundutako proiektuaren laburpena, egikaritzapen-herrialdea eta dirulaguntzaren zenbatekoa) Kontseiluko kide bakoitzarentzat eskuragarri dauden karpitetan bildutako dokumentazioan zehazten da.

Alazne Camiña andreak eta Paul Ortega jaunak xehetasun handiagoz adierazi dituzte aurrekontuak eta dagozkien jarraipen-adierazleak. Diruz lagundutako erakundeak eta emandako zenbatekoak honako hauek dira:

- ZUZ-2021k1-0003: Synergie Des Femmes Pour Les Victimes de Violences Sexuelles: 320.000€.
- ZUZ-2020k1-0004: Unicef Fundazioa Espainiako Komitea.- 300.000€.
- ZUZ-2021k1-0006: Friends of Barefoot College International.- 170.000€.

- ZUZ-2020k1-0007: Mujeres por África Fundazioa.- 150.000€.
- ZUZ-2021k1-0008: Euskal Lankideen Tokiko Erakundeen Elkarte - Euskal Fundoa.- 150.000€.
- ZUZ-2020k1-0009: Pontificia Universidad Javeriana de Cali unibertsitatea.- 249.207€.
- ZUZ-2021k1-0010: Nazioarteko Bake Brigadak.- 150.000€.-
- ZUZ-2020k3-0002: Unesco Etxea Elkarte- Euskadiko Unesco Zentroa.- 190.879€.
- ZUZ-2020k3-0003: BC3 Basque Centre For Climate Change-Klima Aldaketa Ikergai Elkarte eta Kantabriako Ingurumen Hidraulikako Institutua Fundazioa.- 200.000€

Fernando Iturriaga jaunak hartu du hitza eta ohartarazi du ZUZ-2020k3-0003 proposamenean akats bat dagoela, alderdien artean sinatu beharreko eranskinen jasotako 167.850€-ko zenbatekoa ez baitator bat Akordio Proposamenean jasota dagoen 200.000€-ko zenbatekoarekin. Era berean, proposamenaren iraupenari dagokionez adierazi du Akordio Proposamenean agertzen den data ez dela zuzena, eta 2021eko abenduaren 31 izan beharrean 2022ko abenduaren 31 izan behar duela.

Akatsa ikusita, Ana Rojo eta Alazne Camiña andreek adierazi dute hitzarmenaren eranskinaren akats bat dela eta aurreko bertsio bat erantsi dela eranskin gisa. Zenbateko zuzena Akordio Proposamenean ageri den 200.000€-ko zenbatekoa dela argitu dute, eta espedientea Lankidetzaren Ekonomikoko Erakundeari bidaliko zaiola behar bezalako aldeko txostena eman dezan. Era berean, eta Fernandok 2021eko abenduaren 31ko amaiera-data duen Akordio Proposamenean jasota dagoen iraupenari dagokionez adierazitakoa kontuan izanda, data okerra dela egiaztatu da benetan, eta proiektuaren amaiera-data 2022ko abenduaren 31 dela.

Josu Urrutia jauna mintzatu da ondoren eta Euskal Fondoak uraren kanonari dagokionez egindako proposamenari buruz galdetu du, eta zehazki galdetu du eLankidetzak urtero URA agentziaren uraren kanonarengatik jasotzen duen dirua proiektu honetara bideratzea aurreikusita ote dagoen, edo beste ekimen batzuetan pentsatzen ari ote diren. Paul Ortega jaunak hartu du hitza eta erantzun du uraren kanonari dagokion zenbatekoa Euskal Fondoaren erakunde arteko proposamen hori inplementatzeko izango dela.

Azkenik, presidentek jakinarazi du gaur onartzen diren proposamenek 1.880.786 euroko despoltsapena dakartela eta 1.547.461 €-ko zenbatekoa geratzen dela gauzatzeke eLankidetzaren aurrekontuan. Horrenbestez, aurreratu denez, uztailaren 21eko hurrengo Kontseilu Errektorako zuzeneko dirulaguntzen zenbait proposamen eraman nahi dira onartuak izan daitezten.

Bozkatu egin da eta aho batez onartu dira proposamen guztiak, eta Gobernu Kontseiluari aurkeztea proposatu da, onar ditzan.

3. PRE ekintza humanitarioko proiektuei laguntzak emateari buruzko informazioa

Presidenteak jakinarazi du martxoaren 17an argitaratu zela eLankidetzako zuzendariaren ebazpena, 2021erako ekintza humanitarioko proiektuen linea iraunkorraren ekintza humanitarioko esku-hartzeetarako laguntzen deialdiari buruzkoa. Urte osoan irekita dagoen linea iraunkor bat da, iritsiera-ordenaren arabera ebazten dena. 2021eko ekitaldian deialdi honetarako bideratutako hornidura ekonomikoa 6.000.000 euro da, eta 10 proiektu erreserbatzen dira guztira Afrikan egikaritu beharreko proiektuei dagokienez.

Alazne Camiña andreak jakinarazi du 39 eskaera jaso direla orain arte, eta 19 proiektu barematu direla guztira. 19 proiektu horietatik, 3 proiektuk 50 puntu baino gutxiago lortu dituzte, eta, hori horrela, baztertuta geratu dira, eta 16 proiektuk 50 puntu baino gehiago lortu dituzte, eta, horrenbestez, egungo proposamenarekin 3.192.630,04 euroko laguntzak ematen dira, 2.807.369,96 euroko gerakina izango delarik deialdirako. Era berean, Alazne Camiña andreak diruz lagundu beharreko ekimenen ezaugarri nagusiak (erakunde onuraduna, diruz lagundutako proiektuaren laburpena, egikaritzapen-herrialdea eta dirulaguntzaren zenbatekoa) errepasatu ditu, Kontseiluko kide bakoitzarentzat eskuragarri dauden karpitetan bildutako dokumentazioan oinarrituta.

Presidenteak erantsi duenez, uztailaren 21eko hurrengo Kontseilu Errektorean barematzeke dauden 20 eskaeren emate-ebazpenari buruz informatzen saiatuko dira.

4. Genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sustatzeko laguntzak emateari buruzko informazioa

Presidenteak jakinarazi duenez, martxoaren 25ean argitaratu zen 2021eko ekitaldirako genero-berdintasunaren aldeko antolamendu-aldaketako prozesuak sustatzeko lankidetzarako erakundeentzako laguntzak deitzen dituen eLankidetzako zuzendariaren ebazpena. Presidenteak jakinarazi du eLankidetzak ez zuela laguntzen deialdi hori atera 2020. urtean, eta deialdiaren zenbatekoa 250.000 euro izango dela aurtan.

Edurne Bengoechea andreak ekimenei buruzko informazioa eman du, baita diruz lagundutako eskaeren informazio xehatua ere (erakunde onuraduna, finantzaketa-linea eta dirulaguntzaren zenbatekoa), Kontseiluko kide bakoitzarentzat eskuragarri dauden karpitetan bildutako dokumentazioan oinarrituta. Jakinarazi da 7 proposamen onartu direla, 6 proposamen ezin izan direla diruz lagundu funtsak agortu direlako eta 3 proposamen baztertu egin direla 50 puntuko gutxieneko puntuazioa gainditu ez dutelako.

5. Galde-eskeak.

Kontseilu Errektorearen hurrengo bilera uztailaren 21eko 12:30ean izango dela jakinarazi da.

Ez denez beste gairik planteatu, bilkura amaitutzat jo da. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 18.2 artikulua lehen paragrafoan aurreikusitakoa betez, akta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorearen hurrengo bilkuran onartuko dela jakinarazten da.

OE^o Beatriz Artolazabal Albeniz andrea,
Agentziako eta haren Kontseilu
Errektoreko presidentea.

Paul Ortega Etcheverry
Kontseilu Errektoreko idazkaria
GLEAko zuzendaria